



“ Indarkeria aizu dela, baina babesko bide guztiak entseiatu ondoan, ikusten bada, ez dela bertze salbabiderik. Ez da Elizari jukatzea, bainan gizoneri, noiz den borroka armatuan sartzeko ordua. Gizonen jukamenduak desberdinak izan litezkeela, behar dugu onartu”.

“ Bakotxak eginbide duela bere populua zerbitzatzea (Kultura, politika, bertze edozer aldetik). Errespetatu behar duela bere lagunak hautatu duen zerbitzatzeko moldea. Artzainari, aizu ez zaiona da bakarrik, bere ardien etsai bilakatzeta edo hetarik baztertuz bizitza”.

Piarres Lartzabal,

muga ororen gaineratik

Langile eta nekazarien aldeko borrokan ziharduela eta, Hazparnetik bota nahi izan zuten bertako nobleek, azpi joku baten bidez, Santa Krazira

Txillardegia: «Bere hiletetan, azken garaipena lortu»

BERE arrakasta handiena, eta berak seguruen espero ez zuena, Baionako gotzaia bere elizkizuntan egotea izan da. Ez ditu honek bere predikuan esan, noski, Aita Lartzabalek esango zituenak baina gotzaia hor egotea bere azken garaipen txikia izan da. Borrokalaria, abertzale eta apaiz fina izateaz gain, esan behar da euskaltzale porrokatua zela; teatro eta politika mailan kontribuzio garrantzitsu bat egin du euskararen alde, hartu besterik ez, 'Enbata'n ateratako editorialak. Horiek bildu eta liburu batean argitaratzekoak dira.

Angel Arregi: «Iparraldeko gizon lehena»

LEHENENGO, apezka zen. Aita Lartzabalek bere jakinduria, nortasuna eta argitasuna Euskal Herriari eskeini dizkio. Bere bizi guztian arazoak izan dituen pertsona izan da, borrokalari suttsua alegia; Zokoara diru apurrik gabe igorri zuten eta eleiza eraikitzea lortu zuen. 'Anai-Artea'n ekipo gisa aritzen ginen eta guztiok oso loturik bizi ginen, horregatik Iparraldeko gizon lehena izan dela deritzot, deanean. Hartu bere testamentua eta konpara ezazu Ajuria-Enean orain egin duten antolamenduarekin, hortxe duzu diferentzia.

Larrun mendiaren itzalpeko apaiza

Zokoako apaiza, Euskadiko kulturaren eta politikan argi bat

Gaisoaldi luze baten ondoren hil da aita Piarres Lartzabal Zokoako bere parrokiaren aldamenean. Orduko BVEko «inkontrolatuek» Joxe Manuel Pagoaga «Peixoto» tirokatu zutenean tronbosisak jota, ahultzen joango zen gorputzez lehenik eta buruz gero.

Orain dela urte batzuk ARGIAko kazetariei aitortu zienez, berekin eraman ditu lurpera euskal historiako hainbat gertakizunen klabeak. Hemen utzi du, ordea, bere lana, kultur arloan bezala politikoa burutua. Erreferentzi puntu beharrezko bat da bai Ipar Euskadiko abertzaletasun berria ezagutzeko eta bai euskaldunon azken urteok ulertzeko.

Azkaineko baseritik apezgora

Piarres Lartzabal 1915eko maiatzaren 7an jaio zen Azkainen. Artzain pobreen seme, zazpi anai ziren famelian. Uztaritzeko eskolan egin zituen bere aintzin ikasketak, gerora Baionako apezgaitegian sartu zelarik. Parisen soldadutza, non erizain ikasketa batzuri ekin zion diploma bat lortuz; diploma gerora erabiliko zuen, 1936an hain zuzen, «Gurutze Gorri»arekin bat, Estatu Espainoleko guda zibila zela eta zaurituak laguntzeko.

1939an egin zen apaiz, Hazparnengo herriko erretoretzan 12 urtez arituz ondoren. Sasoi honetan hasiko da Piarres bertako sindikalismoa errautsetatik pizten, langileen aldeko sindikatu bat sortuz denborarekin (sindikalismo katolikoa Iparraldean sortu zuen lehena dugu Aita Lartzabal). Bera ezagutu zutenen hitzetan, «beti eta lehen apaiz eta gero,

jende xumearen aldeko porrokatua genuen».

Ez omen zen lantegiko nagusien begiko, gorritzat hartua zuten hain zuzen, langileen defentsan eta nekazarienean, aldatzen bait zuen botza betire, nola legeak hala erregelak errespetatzen eskatuz haiei, eta zekiena erakutsiz eta kontseilatuz langileei. «Lantegietan nahiz famelian aplika itzazue esandakoak» esan ei zien Aita Lartzabalek. Ez zion bizitza osoan ekite honi utziko.

Alemanen hatzaparretatik Erresistentziara

«39an egin nintzen apez. Baina urte horretan gerra hasi zen, eta Parisen 'infirmier' diploma aterea nuenez, soldadu infirmier bezala eraman nindutena, zion 1983ko urrian ARGIAk plazaratu zuen elkarrizketan. 40ean sartu ziren Alemanak Paris-en, Lartzabal preso hartuz. Alemaniara eramango zuten, handik Txekoslovakia eta gero Poloniara. Lan bortxatuetan sartuta, «travaux forcés», aritu zen denbora batez gaisotu zen arteraino. «Polonian gaisotu nintzen, eta ni bisitatzera etorri ziren 'Gurutze Gorri'koak, Suizatik. Han gaizki ikusi nindutelarik, ez nintzela sendatuko esan zieten Alemani, eta hobe zutela ni berriro etxera bidaltzea». Gogo onez gogoratzen zuen Suizan egon zenekoa, Leman lakuaren ondoan, biziki ongi tratatuta.



Sendatu ostean, Suizatik hanka egin eta Lyonetik paseaz Hazparnera eramane zuten zuzen-zuzen bere urratsek, herrian ixilka sartuz. Erresistentzia frantsesean lan egin zezan etorri omen zitzaizkion lagun batzuk, «*armada berri bat muntatu behar bait zen, lehengoa fini bait zen*», gogoratzen zuen. Hiru urte eman zituen Erresistentzian.

Apaiza zenez, egunez nahiz gauez ibiltzeko baimena lortu zuen Gestaporen eskuetatik, baimenaren bidez makinari bat judu, Ingeles, denetarik, alemandarren hatzparretatik salbatuz. «*Hola egon ginen muga-lanean gerla bukatu artio*». Ongi ikasi zituen bai, mugaren gora-beherak, «*ez dut uste askok nik baino hobeki ezagutu duenik!*», aitatu ohi zuen.

Aski farregarria zen garai hartaz kondatzen zuen pasadizu bat: «*Banentorren ni mugatik, halako batez, gauez, Hazparne aldera. Bide guztiak alemanez hartuak ziren. Eta nik nola sar ez nuen ikusten! Bideskan nindoala, horretara, zentinelatopatu dut, mozkor-mozkorra! Hura poza! Banoa ni pasatzera, eta horretan lepotik heldu nau: 'maite zaitut neska', ata halako alemanez —ordurako ongi xamar menderatzen zuen alemana Piarresek—.*

Ilunpe hartan deusik ikusten ez zelarik, eskua sartu du bularren aldera. Eta orduan ohartu da ez nintzela ni neskatxa maitagarri hura! Eta ni, alemanengandiko mila barkamenduren artean, etxera joan naiz lasai!!.

Mattin Karrere: «Apez artean ere beti borrokan»

APEZ artean ia bakarrik beti borrokan aritu den apez honez gogoratzen dudana, beste mila gauzaren artean, Euskal Herriari eskeini dion bere nortasuna izan da, kontzientzia harrerazi dio, beste populuen artean 'zure nortasunak behar du bizi', zioen. Maila guztietan lan egiten zuen gizona genuen, errefuxiatuen alde borrokatzeaz gain, ijito eta zokotuak ziren guztiei dirua, janaria, zuen guztia eman ohi zien. Bere buruaz irri egiten zuela zirudien sarritan baina teologia mailako gauzatan eta, indar handiko hitza zuen gizon bezala gogoratzen dut.

Daniel Landart: «Gauzak egiten handi, izatez ttipi»

LAFITTE bezala, mugaz bi aldeetako euskaldunak batu izan ditu. Mintzairari lotua zen, mintzaira zerbitzatu du. Eremu orotan, gizon agertu da, beti aurrerakoi, herriarengan sinesten zuelako. Frantses armadan, erresistentzian, hiru urtez aritu zen baina Aljeriako gerlan frantsesak salatu zituen. Nahiz bere burua arriskuan jarri, sinesten zuenaren alde beti borrokatzen zuen horietakoa zen. Gauzak egiten handi, izatez ttipi. Idazle oparoa izateaz gain, bere lau edota bost antzerki lan beti antzestuak izan ahaltzen dira.

«**D**ena dago paperetan eta ongi bilduta. Hori izan da nere testamentua. Beste hau erantsirik: ene begiak, balio badiote, Peixotori uzten dizkiodala»


Pierre Halsouet: «Bere antzerkian herriko bozek zuten protagonismoa»

GURE zuzendari izan arren, lagun mailakoa genuen. Aktorea bere sentimenduekin uzten zuen eta gero, aholkuak eman ohi zituen. Orduan Iparraldean ez zen antzerkirik, antzerkigintza errekatik ateratzea izan zen bere lan baliotsuena. Euskararari inportantzia handia ematen zion, hitzak ongi ahoskatu behar ziren. Bestalde, bere piezetan herriko bozek zuten protagonismoa, irudimen handia izan arren, oso errealista zen, herriko bizia zer zen ondo erakusten saiatu zen. Herriarengan ikusten zituen nabardura guztiak izkribuz adierazten zituen.

Marc Legasse: «Apaltasuna bere eguneroko jarrera»

ASKAPENAREN teologotzat daukat. Soldadu bat, antzerkigile aparta eta erakargarritasun itzeleko apezta izan da. San Francisco de Asís-en antza handia zuen. Handikerietaz beti urrun, apaltasuna zen bere eguneroko jarrera, herritarrengan lortu zuen izena alde batera utzi, eta ez zuen inoiz Baionara postu goren baten bila joan nahi izan. Bere Zokoan lurperatua izan nahi zuen, lurrarekin bat egin eta halaxe suertatu da. Talento, umore eta argitasun bizkorreko honelako beste gizon bat kausitzea zail dugu. Kasu bakarra benetan.

Berak jarriko
zituen «Enbata»
taldearen oinarri
ideologikoak, eus-
kal mogimendu
nazionalista eta
Europear federalis-
ta bezala definituz



*Bere eskuz egindako eliza aurreko belazean,
txapela buruan eta umorez topera.*

Gerra bukatzean sekulako ohoreak eskaini zizkioten, «Commandant» izendatuz. Halere, gogorki mintzatzen zen Aita Lartzabal Frantziako armadaz, ez zuela fitsik jakin nahi esanez behin eta birritan. «*Sobera kalte egin bait die Amministrazioneak euskaldunei. Eta hortakotz nere testamentuan emana dut debekatzen dudala frantses bandera batekin eramatea, euskal ikurriña batekin eramateko*».

Sindikalista eta apaiz baztertua

Gerra bukatu eta Hazpainen geratu zen apaiz, ez betirako, noski, 1951ean Zokoara bidali eta apaiz jarri bait zuten bertan, elizarik ez zela eta, bat eraikitzeke aginduz. Zigor moduan atera zuten Hazparnetik Piarres Lartzabal, nahiz pobre nahiz langile edo nekazarien alde borrokan iharduteagatik, haserre zituelako bertako nobleak.

Zokoara bidali aurretik Santa Engraziara igorri nahi izan zutela maniobra baten bidez diote garaiko kronikek, bere erretoreak erabaki horren kontra bihurtu eta bere dimisioa eman ziolarik orduko apezpikuari. Orduan konprenitu omen zuen apezpikuak azpi joko izan zela nagusiengandik Lartzabal apaizaren aurka. Erabakia atzera bota eta ez elizarik, ez apeztxerik ez ze-

goen Zokoa izeneko herrira joateko aukera eskaini zioten. Lartzabalek baietz segituan.

Orduan Zokoa ez zen oraingo itsas bazterreko herri txukun eta polita. Bertako jendeak ingurukoentzako ospea zeukan erdi ijito edo buhame, jende arruntak zirela, txiroak, batere ez eliztarrak. Aitzurra eta pala hartuta egin zuen eliza, han-hemenka dirua bilduz, eskea eginik... «*Dirurik ez bait nuen, medikuek lan bat eman zidaten: enfermero lana hartu nuen, eta hasi nintzen jendea tratatzen, indizioak egiten eta*». Eta gero apeztxea. Zera argitu digu bere lagun mina izan zen Roger Idiat apaizak: «*Zazpi urte egon zen sala txiki batean eta han egiten zituen denak, bere bulego, lo, idazlanak egin...*», apeztxea egin aurretik. Jendearen gainean beti, kontseilulari aparta eta lagun zintzoa, ondo jakin zuen garai hartan ere Zokoatarrak parrokiara gerturatzen.

Hemeretzi urtetatik antzerkigile

«*Beste askoren moduan, kulturaren bidez iritsi nintzen euskal mogimendura*», botatzen zuen Aita Lartzabalek bere kulturzaletasunaz eta euskararen mintzaerari egin zerbitzuaz solastatzen zen bakoitzean. 19 urtetarako, 1934ean hain zuzen, idatzia zuen jada bere le-

hen antzerki obra: «Irri eta nigar», non gerora bere antzerkigintzan hainbat eta hainbatetan lotuko zitzaion gaiaren berri ematen zigun, irria eta negarraren arteko ezinbesteko lotura horren funtsarena alegia, Shakespearearen obren modura. 1945ean, Hazparnen mordoska bat idatziko zituen, baita antzerki taldeak prestatu ere. Euskarazko 18 talde ba omen zituzten herriz-herri aritzen zirenak... Orotara berrogeiren bat antzerki lan egin zuen handietarik eta beste hirurogei bat-edo laburragoak.

«Lartzabal oso inportantea izan da Iparraldearentzat eta Euskal Herri osoarentzat», aitatu digu Daniel Landartek, urte askotan Lartzabalekin bat lanean aritutako antzerkigilea berau. Obra herrizaleak genituen Piarresenak, urte askotan Iparraldeko euskararen sostengu bilakatu direnak, betire herriaren prolematika soziala eta gizar-tearen gorabeherak zituela zio.

Ordurarte elizak —eta garaiko ohiturek—, ez ba zuen onartzen bai muti-koek bai neskatoek elkarrekin antzes zezaten, Landartek gogoratu digunez aurrerakoa izan genuen guzti honetan Lartzabal, txotxolokeriak zirela eta aldarrikatuz... «*Hasieran irri egiteko idatzi bazituen ere (herri xehean sinisten bait zuen sutuki), gero ezagutarazi digu historia, Matalaz, Bereterretxe, Etxahun, Bordaxuri, Ibañeta... Gure benetako historia kondatzen digute*». Gizon oparoa ezin gehiago eta handia bezaz Lartzabal honetan ere, «nahiz eta beti ttipia gelditu», zioen Landartek.

«Enbata»ren sortzaileen erdian

Sindikalgintzan eta herri xumearen defentsan mugitzen lehena izan bazen, eta kulturagintzan asko borrokatu bazuen euskara mintzatuaren alde bere antzerki lanen bidez batipat, ez zituen bere urrats sendoak horretan moztu. 1960ean konturatu omen zen orduraino egindako guztia ez zela nahiko, hutsune politiko nabaria jasaten zutela alegia. «Enbata»ren sorrera gertu zen.

Berak zionez, «halako batez, Ximun Haran —'Enbata'ko lehenengo zuzendaria izango zena—, etorri zitzaidan ikustera; eta hau erran zautan: 'Mogimendu abertzale bat muntatu nahi dut. Montzon ikusi dut. Eta Montzonek zuzana igorri nau'. Pertsona batzurekin mintzatu ondoren sortu zen 'Enbata', hilabetekaria hastean». Zortzi ziren: Haran bera, Labéguérie, Jaki Abeberri, Burukoa, Aramendi, Davant, Mixel Epherre eta Lartzabal. «Enbata» mogimendu politikoari dagokionez, berak jarriko zituen oinarri ideologikoak, euskal mogimendu nazionalista eta Europear federalista bezala definituz.

Polemista ona zela zioten. Aljeriako gerra garaian idatzi zuen Frantziak aljeriatarrek zapaltzen zituen bezala euskaldunak ere zapaltzen zituela, eta auzitegira eraman zuten Laffiterekina batera, non isun bat ordaintzera zigortu zuten: «Beti lotu izan du Euskal Herriaren prolematika mundu zabalean ger-

«Obra herrizaleak genituen Piarresenak, urte askotan Iparraldeko euskararen sostengu bilakatu direnak»

Jose Manuel Balenziaga: «Etsaiaren aurka beti lehen lerroan egondakoa»

LAN humanitarioak egiten elkar lezagutu genuen, gizon pragmatikoa, kristautasuna eta borroka-iraultzaren arteko sintesia aurkitu zuen, bere garairako klaribidentziaz hartzen dut nik. Berak abanjelioan Jesus pobreen alde zegoela ikusi zuen eta samaritanoaren antzera bere herriaren alde jokatu zuen. Pertsona apala, bere etxea edozein errefutxiaturentzat beti irekia eta babesleku, aholkuak ematen pertsona baliotsua. Askapen Teologiaren langilea eta etsaiaren aurka beti lehen lerroan egondakoa. Gure herri pobrea ederki asko ulertu zuen apaiza.

Roger Idiart: «Azpi-joku batez mendirat bidali nahi izan zuten»

HAZPARNEN bikario zela, nik ordurarte inoiz entzun ez nuen bezala, sermoietan gai sozialak ezartzen hasia zen eta orduan sortu edota sortarazi zuen langileen aldeko sindikatoa. Komunistek Hazparnen langileen aldeko sindikatoaren atzetik zebiltzan baina ez zuten lortu, Lartzabalek, aldiz, lortu zuen sindikatu ezkertiarra erdiestea nahiz komunista ez izan. Orduan nagusiak gorria zela kexatu ziren eta azpi-joku batez mendirat bidali nahi izan zuten. Gotzaia horrezaz konturatu eta lehenagotik lau abaderi proposaturiko lan bera, Zokoako eliza eraikitzea, proposatu zion. Baita segituan onartu ere.



1976ko abenduan, gose grebalariai poliziak katedraletik bota zituztenean. Bere ezkerretan Koko Abeberri.

Eli Galdos: «Konfidantza eskeintzen zuen pertsona abertzalea»

DUELA hamalau bat urte ezagutu nuen eta beti pertsona maitatu eta maitagarria izan da. Abertzale moduan ezagutu nuen eta beti miretsi izan dut ihesi joan diren pertsonenganako zuen arreta. Franco garaian eta beranduago ere, errefuxiatuen alde egin duen lana eskertu behar zaio. Beregana joaten gine konfidantza eskeintzen zuen pertsonatzat hartzen genuelako. Larri geundenean berarekin berba egin eta lasaitu egiten zinen. Bere esku-bideen alde borrokatzen zuen apaiza izan da. Benetako gizon abertzale handi bat, pertsona on bat.

Maurice Borthayrou: «Hazpainen iraultza sortzen ari zela zioten»

BETI eta lehen, apez zen eta gero, jende xumearen alde genuen. Beti miatu ditu jende honen aldeko erregelak eta legeak. Berak ikasi eta guri erran zizkigun gure lantegietan eta familietan aplika genitzan. Gure eskolatzailerak eta kontseilariak genuen eta ez zen lantegietako nagusien begiko, horregatik mila arazo sortu zioten. Hazpainen iraultza sortzen ari zela erraten zuten. Aita Lartzabal bezalako bat ez da hiltzen, berak egindako eta errandakoak hor gelditzen dira. Anitz eta anitz abertzale bada orain Iparraldean, Aita Lartzabali zor diogu hori. Jende xehea eta abertzale zer den erakutsi digu beti.

Hiru urte eman zituen Erresistentzian, gerra bukatzean sekulako ohoreak jaso eta «Commandant» izendatu zutelarik



1982ko irailak 26ean, Lartzabalen omenez Miarritzeko Euskal Jailetan egin zen meza.

«*tatzen ziren gertakariekin*» dio Landartek. Borroka guztietan present genuen Aita Lartzabal. Umila oso, «*apezak beti parte hartzea ez da ona; eta nik idatziz-eta lagundu dut, baina ez bertzela*». Artikulu andana egina du, editoriale mordoia ere bai «Enbata»n, «Herria»n eta «Gure Herrian»...

«Anai Artea»: Iparraldera ihes egindakoen babesleku

«Enbata» martxan jarri zen sasoiaren ezagutu zituen lehenengo errefuxiatuak. «*Lehenengoak 1960an agertu ziren. Ez zen 'Anai-Artea'rik artean eta etxean hartzen nituen. Zenbat istorio urte haietatik!*», eta harrez geroztik zenbat gora behera Hegoaldetik ihes egindakoen inguruan! Beti tartean. Jendea piloa etortzen zen beregana, aterpe eske: «*1968an 'estado de excepción' eta zapalketa gogorra azkartu zirenean, ihes egindako jendez betetzen hasi zen Iparraldea*». ETA baino lehenagoko iheslariak ere ezagutu zituen ordea. Entzun, entzun bere hitzak: «*Karlisten denborako jendea ere ezagutu dut hemen. Santa Kruz apezaren soldaduak ziren zenbait —gogoan hartu bi aitonak desertoreak zituela Lartzabalek—. Horiakin uste dut sartu zitzaidala neri apez izateko bokazioa. Beti esplikatzen zidan batek Santa Kruz nolakoa zen, bere historiak esanaz: 'Santa, Santa*

Kruz, hura zuken egiatzko apaiza!».

Lehenengo mementuetan etxean hartu zituen ihesleak, baina 1969az geroztik gainezka egin zion etxeak! «*Halako batez Telesforo etorri zitzaudana eta 'Anai Artea' baten beharra azaldu zidan. Eta horrela sortu zen*». Telesforo Monzon lehendakari eta bera sekretario moduan (hamar urtez hain zuzen) aurrera ekin zioten urteetan zehar hain gordina suertatu den lanari.

Burgosko prozesuan jokatu zuen partak, errefuxiatuen alde Baionan izandako gose greban aritzeak, Behil kontsularen bahiketan egin zuen bitartekoak eta Euskal Herriaren aldeko beste hainbat borroketan egindakoei etsa asko sortarazi zizkion, zenbaitek hil ere egin nahi izan zuelarik. Denak jasan zituen, Peixotori egin zioten atentatuak gertatu arte. Orduan lehertu zitzaion lehenengoz bihotza. Harrez gero joan zen Lartzabal itzaltzen, nahiz eta, burua argi eta arin izan azkenerarte.

Heriotzaren muga ere gaingitu nahi izan zuen. Duela zortzi urte bere testamendua idatziz, hiltzen zen egunean irakurri zedin asmoz. Argiako 991. artikuluzko dizkarian berari egin elkarrizketan zera zion bukatzeko: «*Dena dago paperetan eta ongi bilduta. Hori izanen da nure testamentua. Beste hau erantsirik: ene begiak, balio badiote, Peixotori uzten dizkiodala*».

N. ARRASTOAINA

L. ARISTIA